



# Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa.

## III. ERANSKINA : ERALGIP

Urtea :2017 | Ekonomia Sustapena

### DESKRIBAPENA

Enpresen balio jasangarria sustatzea, eta horretarako, aukera lurraldeak sortzea beren eskumenak modu adimentsuan aplikatuz, desberdintzearen eta dibertsifikatzearen bidez, eta produktu, zerbitzu, merkatu edo negozio eredu bihurtuz.

### ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak; eta,
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak
- Gipuzkoan kokatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.

### DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagun daitezkeen jarduerak izango dira proiektuak garatzea (ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, enpresa eraldaketako dinamikak eta esperientzia esperimentalak ezartzea) xede hauetarako:

- Enpresaren jakintza bereizgarria identifikatzea eta modu adimentsuan ustiatzea (oinarrizko eskumenak eta balioa sortzea), eta jakintza bereizgarri horrekin koherenteak diren gizartera eta merkatura proiektatzea, etorkizuna duten enpresa aukerak sortzeko;
- Erabiltzaileak eta bezeroak enpresetan eragile aktibo bihurtzeko prozesuak txertatzeko
- Ekonomia zirkularra garatzera zuzendutako enpresa eraldaketako prozesuak sortzeko
- Ebaluatu, balioztatu eta gizartean zabaltzeko produktu, zerbitzu eta negozio ereduak dibertsifikazio, desberdintasun eta balioaren ekarpen prozesuak, ezagutza eta enpresa-lehiakortasuna handitzearen.

### DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)



## DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntzak kostu hautagarrien % 75a izango dira, salbu eta ikerketak, analisiak, azterketak eta laguntza tresnak sortzea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, dinamikak ezartzea ..., horietan %100 izango baitira.

## EMATEKO PROZEURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

## BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

## BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2017ko uztailaren 7an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera**

Proiektuen exekuzio data: **2018ko ekainaren 22a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2018ko uztailaren 22a**

## ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa. III ERANSKINA - Enpresen eraldaketa produktu, zerbitzu eta negozio ereduen dibertsifikazioaren, desberdintasunaren eta balioaren ekarpenaren bidez.

## ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak  
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eralgip>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa  
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

## EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

JAKINTZA ETA ENPRESA JARDUERA SUSTAPENERAKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

[sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus)